

Literatura

Autofikzioa

Homerok nahiko luke Ulises izan

“Autofikzio” esan duzu kafesne literario batean. Nako ederra. Mahaian denak geratu zaizkizu arretaz begira. Moda-modako hitza baita; geroz eta idazle gehiagoren apustua. Garaiak aldatu diren seinale: Homerok, orain, ez du aski Ulisesen abenturak kontatzearekin. Bizi egin nahi ditu.

GORKA BEREZIARTUA

DELA astekari honetako *Ttakun (H)errenka* sailan, Katixa Agirreren lumaz; dela *Jakinen*, Uxue Alberdiren artikulu batean; dela *Berrian* Kirmen Uriberen azken nobelari Beñat Sarasolak egindako kritikan... “Autofikzio” hitza nonahi ageri da azken aldian. Lagundu du, asko, Durangoko nobedadeen artean Hanif Kureishiren *Intimitatea* egon izanak, Harkaitz Canok itzulia, Txalapartak argitaratua; eta lagundu du, ez gutxiago, Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao*

(Elkar, 2008) klabe autofikzionalen idatzita egoteak, ondarroarrak duen erakargarritasun mediatikoak nobela motaz hitz egitea ekarri duelako. Lehenagotik ere bagenezkan, kuantu, autofikzioak euskaraz: Annie Ernauxen *Gertakizuna* eta *Lekua* argitaratuak zituen Igelak –Joseba Urteaga itzultzaile–, baita Amélie Nothomben *Durduzaz eta dardaraz* ere –Joxean Elosegik euskaratuta–. Saillapenean sartu ez ditugun beste hainbat liburuk ere mereziko lukete zerrendan egotea. Eta, ziur, jaioko dira berriak, modak, moda izan nahi badu, jarraitzaileak behar dituelako.

Zer arraio da?

Oximorona, edo antzeko zerbait da autofikzioa: itxuraz elkarrekin talka egiten duten bi terminoren uztarketa; autobiografia eta nobela nahastuta zerbitzatzen den *kubata*. Serge Douvrovsky kritikari eta idazle paristarrak erabili ei zuen aurrenekoz 1977an, berak idatzitako *Fils* nobela sailkatzeko. Lehenago ere tankerako liburuak bazirela kontuan izanda –zerrenda luzea aurki dezakezue www.autofiction.org webgune frantsesean, tradizio literarioa sailkatuta–, lasai asko esan dezakegu Douvrovskyk ez zuela genero berririk asmatu. Baina, Angel Errok esango lukee-

nez, “oro errana da, baina ez nik”: sarritan, aski izaten da gauza berari izen diferentea ematea, fenomeno berriaren antzezlanak jokatzen hasteko.

Autofikzioaren azken aldiko gorakada erantzun bat izan liteke, idazleek liburuaren debaluazioari emandako erantzuna, hain zuzen

... ondo, baina, zergatik moda hau?

Ez gara abentura teoriko eta argumetal handietan galduko. Literatur teoriak ia ezer jakin gabe, jurnalista honi buruhauste handiak ekarriko lizkioke artikulua garaiz bukatzeko.

Beheko argazkiko erretratuan, Enrique Vila-Matas idazle kataluniarra. Autofikzioaren alorrean lan sano interesgarriak egin ditu: *Paris no se acaba* edo *Dietario voluble* besteak beste.

Zertxobait gehiago dakigu industria editorialak azken urteetan izan duen bilakabideaz. Eta industria diogunean, liburu usina handiez ari gara: ingelesezko, frantsesezko, espainolezko liburuak editatzen dituztenez. Horieta, geroz eta ohikoagoa bilakatu da *People* aldizkariak azala mereziko luketen pertsonaiek “beraien” liburuak kaleratzea: futbolariak, telebista aurkezleak, aktoreak... Eta liburu horiek saldu egiten dira, asko. Zaplanak ordea, zertzena behar izaten du enborrarekikoak bukatu nahi badira. Ikuspuntu horretatik, autofikzioaren azken aldiko gorakada erantzun bat izango litzateke; idazle batzuek liburuaren debaluazioari emandako erantzuna, hain zuzen ere.

Irakurleak bizitza pribatuen gose direla? *Voyeur* hutsak? Idazleak bere gaueko zurrungak, goizeko nekeak eta eguerdiko sexu arazoak eskaintzearen truke –errealitatefikzio jolas kilikagarriekin, gainera– irakurleak eskuratuko ditu. Formulak funtzionatzen du.

Lan teoriko sakonagoen esperoan, autofikzioak dagoeneko zerbait lortu du, unibertsitarioko beren bizitzarekin zer egin asmatu ezinda ibiltzen baitira: abenturak bizi, Ulises izan? Letren mundu lasaian murgildu, Homero bezala? Orain ez dago zalantzarik: biak egin ditzakete. ■

